


KULTURA SAN MIGEL JAIEN ERREPASOA · GEHIGARRIA TXIKIBARREN
KIROLA EHIZA XEHE TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

BARRREN

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko urriaren 1a/XII. urtea/503. zkia



IZASKUN AROZENA ETA TXOTXE AMERIKAN ZEHAR BIZIKLETAN

Helmugarik gabeko bidaiak

2004 Bnospetel

Tröster



ITURGINTZA

- Aire egokitua eta sistema integralak
- Klimatizazioa
- Berokuntza
- Gasa
- Iturgintza
- Erregai likidoak (gasoleoa)
- Eguzki energia

ERAKUSKETA



GOKI ERREFORMAK



ERAKUSKETA
Olaso Poligonoa, 15
68 pabilioia
20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 74 28 80
943 74 42 23
943 74 46 40
Faxa: 943 74 45 87



Udazkenaz

Irailaren 22ak beste markatzen du Donostiako zinemaldiaren amaierak udazkenaren hasiera. Telebistan, *Corte Inglesak* egin ohi duen iragarkiak beste. Haurrak bizikletak aparkatu eta motxila handiak bizkar gainean hartuta ikusteak beste. Haizeak beste. Zeru grisek beste. Baietz, etorri dela udazkena. Atzean geratu dira udako sargoriak eta egun luzeak. Argazkietan eta gure memorian baino ez daude oportetako sekuentziak. Tira, bizitzaren zikloa. Konturatzen garenerako, urteak joan, urteak etorri. Eta bien bitartean, gure bizipenak, parentesi artean hertsia. Aurten, gainera, Françoise Sagan hil da, Bonjour, tristesse eleberraren egilea. Gaztetan irakurri nuen, izenburuak erakarrita. Garai hartan umeegia nintzen tristura zer zen ulertzeko eta, halere, liburu hark erabat liluratu ninduen. Bazuen, eta badu, zerbait berezia, hunkitzen duena. Françoisek 19 urte bakarrik zituen idatzi zuenean. Bera ere, ustez, gazteegia tristuraz ezer asko jakiteko baina, halere, istorio ederra idatzi zuen. Udazkenean zendu da. Eta bere heriotzak gogorarazi dit nik ere zor diodala nire bizitzako une batean berak idatzitako lerroak irakurriz tristura zer den jakitea, eta tristura errespetatzen ikastea.

Udazkeneko arratsalde honetan, malenkoniaz begiratu dut atzerantz, haurtzarorantz, nerabezorantz. Eta ohartu naiz ez dela ezer tristeagorik iraganari begira bizi eta pasatako garaiak hobeak izan zirela pentsatzea baino. Horregatik egin dit ilusioa armairua ireki eta berokia ikusteak, iaz erositakoak aurten ere balio didalako. Arropak bezala, bizipenak ere birziklatu egin daitezkeelako. Pasatakoak berreskuratu eta daukagunaz disfrutatuz. Udazkenak memoria astintzen du.

Jasone Osoro



Errespetua

Atzerritik heltzen zaizkigun ezbehar, gerra eta miseriak benetan latzak dira. Bestalde, interes gehien sortzen duena gertuko berria izan ohi den bezala, hurbil gertatu ezbeharrak hunkitzen gaitu gehien. Joan zen astean hamalau urteko gazte batek bere buruaz beste egin zuen Hondarribian. Eskolan iraindu eta jipoitu egiten zuten. Etxetik goizean goiz irtetzen zen, baina ez zen eskolan agertzen. Beldur zen. Azkenean bere biziarekin amaitzea erabaki zuen. Zenbait ikaskide eskolatik kaleratuak izan dira. Eta gurasoak guztiz atsekabeturik daude, bai alde batekoak eta bai bestekoak ere. Psikologoek diotenez, irain psikologikoen fisikoek baino min handiagoa sortzen dute umeengan. Txikitik “berezia” bazara, ixila, besteak baino txikiagoa, lodiagoa, zatarragoa... indar psikologiko handia behar duzu izan, ondokoen irainak jasotzeko aukera handiak baitituzu. Zergatik gara hain txarrak txikitik? Ez dut aingeru koroa jarriko buru gainean. Ni ere nireak egindakoa naiz, baina baita jasotakoa ere. Badirudi ez dakigula zer den lagun urkoa errespetatzea institutua amaitu arte.

Errespetua, derrigorrez gainditu beharreko ikasgaia.

Ion Gurrutxaga

| | |
|-----------------|----|
| Kexak..... | 5 |
| motZ MotZ..... | 10 |
| gehigarria..... | 13 |
| kiROLak..... | 20 |
| aGenda | 24 |

Urruzunoren begi ezkutua

Suerte onarekin presoeti bixita



Brummm, brum, 100km. Brum, brum, 200km. Brum, brum, 400km.

Brum, brum. 666. kilometroko Restoepan, mokadutxo. Brum, brum 808km.

Tik-tak, tik tak. Bisita ordurako 20min. Tik-tak, tik tak, bisita ordurako 10 min. Tik-tak, tik tak, Euskal Preso Politikoa kristalaren beste aldean ikusteko, 8 min(...) piiiiiiniiii ¿lleba usted algo de metal????? piiiii

Quitese los zapatos.

Metalak detektatzen dituen atea zeharkatzea lortu ondoren... tipitapatipitapa.TxiirrTXOF.TxiirrTXOF. Lehenengo burnizko atea zeharkatu eta... tipitapatipitapa. Txiirrtxof. Txiirrtxof. Burnizko beste ate batzuk zeharkatu. Tik, tak, tik, tak, tik. Badatoz badatoz! Iritsi dira

2. modulokoak!! Tiktak!! Hara hor 4. modulokoak!! (kartzela berean, modulo ezberdinetan bizi dira sakabanatuta.) TIK. Faltan 5 minutos para acabar la visita... La visita ha concluido. Bisitako 40 minutuak iragan dira eta bagoaz etxera bueltan.

Berriro atek, berriro 800 kmk-ak, berriro mokadutxo.

Asteburuan bisita badaukazu... Kontuz ibili errepidean, dagoeneko bizitza gehiegi joan baitira errepidean dispersioa dela eta.

Amaia Urzelai

ELGOIBARKO IRITZI PUBLIKOARI ZUZENDUTAKO GUTUNA

Duela urte batzuk herrian merkatuetako saltzaileok zorte handiago edo txikiagoz, geure lana burutzen ari gara, horretarako ezarritako arauak behar bezala betez, geure ustetan.

Geure harridurarako eta gu ezertarako kontuan hartu gabe (geure lanpostuari zor zaion errespetua eta etikari muzin eginez), udaletxeak gutun baten bitartez merkatuaren leku aldaketa ezartzen duen agindua jakinarazi digu.

Ulgerria da kokapen aldaketarekin ados ez egotea, geu hondamendi eta ilunpera eramatea baita.

Udaletxeak ez du modu garden batean jokatu (eta beraren lekuko ditugu jaso diren 1.500 sinadura baino gehiago eta Txankakua Merkatarik Elkartearen babes) merkatuaren leku aldaketaren gaiarekin.

Merkatu egunetan giroa, bizitasuna, prezio eskuragarriak, hartu-eman zuzenak eta giro atsegina sortzen dira. Salneurriak erregulatzen dituen merkatu baikorra gara, eta ez etsaia.

Merkatuko eskaintzaren saturazioa ezagutzen dugu. Baina lehen multinazional bat zegoen tokian, gaur ehun daude eta bakoitzak bere parking eta erosotasunak dauzkan bitartean herrietan ezinezkoa izaten da aparkatzea.

Beraz, geure etorkizunean, komertziorik gabeko herriak eta multinazionalen baldintzarik gabeko langileak ezagutuko ditugu. Eta aldi berean multinazional horiek ezartzen dituzten salneurriak onartu beharrean aurkituko gara.

Sistema kapitalista batean murgilduta gaude eta oso erraza da bertako jabeak nola izena duen jakitea, ezta? Gure agintariak sistema horren zerbitzariak dira, eta beste guztia... beste guztia kontu hutsa da.

Raul Argaiz
Azokako Merkatarien izenean

ASTEKARIA BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com


Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduarne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



DANOBAT
EUSKO JAUROLARITZA



GOITI
EUSKO JAUROLARITZA



ESTARTA
EUSKO JAUROLARITZA


KEXAK

◆ Emakume batek azaldu digunez, **autobus geltokietako markesinak puskatuta daude**: “Txankakua eta King-Kong-eko autobus geltokietako markesinak puskatuta daude. Uda aurretik puskatu zituzten kristalak, eta oraindik ez dituzte konpondu. Euria eta haizea egiten duenean autobusaren zain izoztuta geratzen gara. Behin baino gehiagotan puskatu eta konpondu dituzte, baina kristala puskatu egiten dela kontuan izanik, zergatik ez dituzte markesinak beste material batekin egiten? Mesedez, lehenbailehen konpondu ditzatela, negua berehalarekin iritsiko da-eta”.



TXALOAK

◆ Guraso talde batek Karakate Mikologia Elkarte txalotu nahi du, **30 urtetan perretxiko txapelketa antolatzen egindako lanagatik**: “30 urte! Erraz esaten da, baina badira urteak. Perretxiko zaleek oso ondo pasatzen dute, eta gainera haur guztiak izaten dute beren saritxoa. Giro oso ona egon zen joan zen igandean Plaza Handian. Jarraitu horrela!”


GALDERAK

◆ **Zergatik egoten da itxita Arrantzaleen Pasealekua?** Herritar batek esan digunez, Arrantzaleen Pasealekurako sarbide guztiak itxita egoten dira. Hirigintza Sailera jo dugu, eta Migel Anjel Mujikak esan digunez, **Arrantzaleen Pasealekua ez da jendea ibiltzeko pasealeku bat**: “Izena gaizki jarri zitzaion. Arrantzaleen Pasealekua esanez, jendeak pasiaran ibiltzeko lekua dela uste du, baina ez zen helburu horrekin egin. Ibaiko kolektorea egin behar zenez, ingurune hori apur bat txukuntzeko egin zen bide hori, baina ez da pasealeku bat. Ibaia txukuntzeaz gain, etxeen fatxadak konpontzeko lanak erraztu dira, lehen ezin baitzen ibaian aldamiarik jarri, eta orain bai. Ez dugu nahi jendea ibiltzerik, leku arriskutsua delako, eta ezbeharren bat gertatzen bada, errudunak geu izango garelako. Horregatik egoten da itxita”.



**“GAZTE SORTZAILE JAIALDIA”
GRAFFITI LEHIAKETAREN
FINALA 2004**

[10:00-16:30] Graffiti Lehiaketaren finala
- Hamar lehiakideek hamar pareta graffitatu dituzte.
- Estetuko graffinari ezagunak, SLK, Isra, Okuda, Diba...frontoiko hamar margetuko dute.

[11:00-14:00] Ikuslearentzako Parte hartzeko hamaika aukera...
- Graffiti tailerra, Scratch eta DJ tailerra, Musika ordiragailu bidez egiten ikasteko tailerra, Perkusio tailerra, Break Dance tailerra, Skate tailerra, (pista jarriko da ekarri zuan patinak).

[17:30] Erakusketa eta kontzertuak
- DZ ren musika erakustaldia, Scratch erakustaldia, Skate erakustaldia, perkusio erakustaldia, Break dance erakustaldia.
- M.A.K Iparroldeko taldearen Rap doinuak.
- Aritz Sound System eta DZ eta INTXAURBREAK dantza taldea.
- Selektah Sound System.
- Kadun Karama taldearen afrikar doinu eta dantzak.

TOPAGUNEA
EUSKARA ELKARTEN FEDERAZIOA

MENDAROKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MENDARO

deba
BARRENA

Urriak 2
MENDARO

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

karkizano
San Frantzisko, 14
Tel. 943 74 05 49

Helmugarik gabeko bidaia

11.000 kilometro Hegoamerika eta Ertamerikako hamaika herrialdetan zehar bizikleta gainean. Erraz esaten da, lerro bakar batean, baina Izaskun Arozenak eta Txotxek denbora honetan ikusi eta bizi izan dutena azaltzeko liburu bat beharko litzateke. Nor litzateke beraien begiek ikusi dutena ikusteko gai!

Prestakuntzak

Bizikletaz distantzia luzeko bidaia bat egiteko ideia aspalditik izan arren, 2002. urtean hasi ziren serioski prestatzen. Asia zeharkatzen duen Zetaren Bidea bizikletaz egitea Txotxeren aspalditiko asmoa zen, baina Amerikaren aldeko apustua egin zuten azkenean. “Errazagoa da nolabait eta hizkuntza ere gure alde geneukan. Seattletik (Ameriketako Estatu Batuak) beherantz abiatzea pentsatu genuen ozeano pazifikoaren kostaldetik, baina gure dentista argentinarra da eta Argentinara iritsi orduko oso eguraldi txarra egingo zuenez, bidaia bertatik hastea gomendatu zigun. Zergatik ez? pentsatu eta hasierako ideiak hankaz gora jarri ostean, Argentinatik abiatzea erabaki genuen”. Bidaia guztia bizikletaz egin dute eta apenas erabili dute autobusik edo beste garraiorik. Ekuadorretik Panamara hegazkinez joan ziren: “Ekuador eta Kolonbiako gobernuek Farc-eko gerrilla atzemateko akordio bat sinatu berri zuten eta muga nahiko nahasia zegoenez, Kolonbia hegazkinez igarotzea erabaki genuen”.




Bideko oztopoak

Era guztietako klimatologia eta oztopo orografikoak aurkitu dituzte Amerikan. Ertamerikan bero itzela, “goizaldeko 5:00etan esnatu eta ia 30 gradutan geunden %70eko hezetasunarekin. Bolibia eta Txile artean, berriz, munduko basamorturik idorrenetakoa ezagutu genuen, Antofagastakoa. Bertako biztanle batzuek sekula ez dutela euririk ikusi diote. Ez dakit egia edo zurrumurru bat den, baina hala diote. Bizikletan ibiltzeko areriorik txarrena, ordea, Patagoniako haize bortitza izan zen. Egun batzuetan bizikletatik jaistera behartu gintuen. Jendea motorretatik bota edo autobusak bidetik ateratzeko adinako indarra zuen. Bolibiako goi-lautadan garaieraren eraginak nabaritu genituen, 4.800 metroko altueran dagoen errepide batetik pasa ginelarik”.



Milioi bat baino gutxiago

Pentsa daitekeena baino diru gutxiago behar omen da horrelako bidaia bat egiteko. “Milioi bat pezeta (6.000 euro) baino gutxiagorekin oso ondo moldatu gara, hegazkineko txartelak barne. Hilabete bakoitzeko 300 dolar inguru gastatzen genituen bakoitzak, janaria, lo egitea eta dena sartuta. Eta badago gutxiago gastatzen duenik ere. Oso egoera ekonomiko baikorrak aurkitu ditugu: Argentinan, Bolibian eta Perun batez ere. Herrialderik handienetan eta denbora gehien pasa dugunetan, hain zuzen ere. Txanpona gure alde geneukan eta bizimodua merkea zen. Egia da luxurik gabeko bizimodua egin dugula, baina masokismoraino iritsi gabe. Tabako paketea eta eguneroko zerbeztaxoa ez zaizkigu falta izan, nahiz eta bizio bakarrak izan diren. Leku askotan 5 dolarren truke lortzen genuen gela bat dutxa batekin”.



Amerikan zehar

Beldurraren kultura

“Etxetik atera aurretik izaten dituzun hasierako beldurrak txarragoak dira gero bidaiari zehar bizi dituzunak baino” azaldu digu Izaskunek. “Arrisku sentsaziorik ez dugu inoiz eduki, baina Bolibiako goi-lautadan pasa nuen gaizkien. Herralde gogorra da eta egoera oso larrietan bizi dira. Beraien artean bizikletaz pasatzeak barneko ezinegona eta mila kontraesan sortzen zizkidan, kontrastea itzela baita: gu bidaiatzen eta beraiek ozta-ozta bizirautean”. Dena dela, kontinente osoan beldurraren kultura zabaldua dagoela egiaztatu ahal izan dute. “Jendeak bata bestearen mesfidantza izan dezan nahi dutela iruditu zitzaigun. Prentsan islatzen da dioguna, prentsa horia eta gertakariak baitira nagusi: bortxaketak, lapurretak. Kazetaritzaren %90a tankera honetako da. Dena dela, guk ezagutu dugun errealitateak alderantziko sentsazioarekin itzultzeko balio izan digu, izugarri ondo portatu dira gurekin. Dena eskaini digute, jatekoa, lo egiteko tokia, garraioa, e.a. Honek ez du esan nahi hiri handietan halamoduz ibili behar denik, adi ibiltzea eta neurriak hartzea komeni da”.



Berriz martxa hartzea

Itzuleran hemengo bizimodura ohitzea kosta zaie. “Ni berehala hasi nintzen lanean, baina oraintxe ari naiz gaizkien pasatzen. Bidaiari geneukan askatasunaren falta nabari dut” aitortu digu Izaskunek. “Han, goizean altxatu eta nahi dudana egiteko aukera nuen inork ezer agindu gabe. Biok oso gustura sentitu gara erritmo horretan”. Txotxek gizatasuna errekuperatzeko balio izan diola gaineratu digu: “Bizikletak ere badauka bere diziplina: puntuari ipini, zakutoak prestatu, e.a. baina diziplina interesgarria izateaz gain, familiaz eta lagunetatik gogoratze edo lagun berriak egiteko inoiz baino denbora gehiago eskaintzen du. Hemen daramagun bizimoduak askotan balore horiek ahaztarazten dizkigu eta leku guztietara ezin iritsiak agobiatu egiten gaitu askotan. Honez gain, horrelako bidaiari batera jarrera irekiagoa eraman ohi da eta norbera emozionalagoa bihurtzen da. Korazak desagertzen dira eta emozioak errazago azaleratzen, norbera bere buruarekin harrizteraino”.



Bizikletako bidaiaren filosofia

“Txilen, Perun eta Bolibian bidaiari luzeko txirrindulariak ezer kobratu gabe hartzen dituzten etxeak ezagutu ditugu. Bagenekien bazeudela, baina bertan aurkitu dugun giroak harrapatu gaitu. Bizitzeko filosofia ezberdina daukan jendea ezagutu dugu. Gure gizarteak ikasi, lan egin, etxea erosi... dena markatzen digu. Hauek beste era batera planteatzen dute bizitza. Batzuk 3 eta beste batzuk 7 urte daramatzate bidaiatzen. Beste batzuk haurrak ere izan dituzte bidaiari. Jende honi esker beraiei bidaiari gozatu ahal izan dugu gure bidaiari barruan. Denetarik aurkitu dugu. Horacio izeneko argentinarraren fenomeno batek suhiltzaileen etxeetan egiten zuen lo eta Hegoamerika osoko bonbero etxeen zigiluak zituen. Alvaro izeneko asturiar bat ere pailazoz jantzi eta ikuskizunak eskaintzen aritzen zen han eta hemen. Zazpi urteko bidaiari hasi berri du. Argentinarraren familia baten kasuak txundituta laga gintuen. Gurasoak eta hiru alabak aurreztutako dirurik gabe geratu ziren korralitoaren erruz eta bostak atera ziren bizikletan bizimodua topatzera. Errepideko bizikleta batean 16 hilabetean 30.000 kilometro zeramazkien 23 urteko kanadar bat ere ezagutu genuen eta baita gurditxo bati tirako oinez bidaiari zuten japoniar bat ere”.



“Bizikleta izan da gure aberria”

HITZ GUTXITAN

LEHEN PEDALKADAK:

Izaskun: Hasierako beldurrak.

Egoera ezezagun batek sortzen duen ezinegona.

Txotxe: Nik alderantziz: azkenean hasi gara. Lehen pedalkadak emateko desiatzen

AMERIKA/AMERIKARRAK

T.: Gizatasunaren aberria

I.: Kontinente handia, aberatsa, baina lapurtua eta abandonatua aldi berean. Amorrua: lapurtu dieguna, lapurtzen jarraitzen dieguna eta hala ere eskua ematen digute bi ostikada emanaz kanporatu beharrean.

ERTAMERIKA

Ameriketako Estatu Batuetatik oso gertu bizi dira eta hango eragina begi bistakoa da. AEBetako atzeko patioa dela esaten diote.

Oso matxakatuta aurkitu genuen. Barne gudak, lurrikarak, El Niño fenomenoak... hala ere, aurrera jarraitzeko adorea daukate.

HEGOAMERIKA

Nortasun propioa eta gainera, berria topatzen ari dira: Lula Brasilen, Chavez Venezuelan, Kirchner Argentinan, e.a. Txispadun kontinentea da.

GRINGO

Argentinatik gorantz atzerritarrak gringoak gara bertakoentzat. Konnotazio zatarreko berba izanagatik ere, era oso abegikorrean esaten ziguten.

BIZIKLETA

T.: Nire aberria eta bigarren amorantea. 20 urte daramatzat bizikletan bidaiak egiten eta gero eta gusturago.

BIDAIATZEA

Bizi izateko era bat. Bidaiatzeko erarik eleganteena bidaiak zure bizitzan integratzea da.

BIDAIARI ZOROAK

Batetik ez genuen espero horrenbeste txirindularirekin gurutzatzea eta bestetik badirudi lehengusu batekin elkartu zarela. Horregatik izan da elkartze eta agurren bidaiak.

PAISAIA BAT

Txile eta Bolibia arteko muga, tartean Uyumiko gatzagak. Euskal Herriaren erdia dira tamainaz eta erdian Incahuasi izeneko uhartea daukate.

Distantzia luzeko txirindulariei bakarrik lagatzen diete bertan lo egiten.

TXIROTASUNA

Batez ere hiri handietan dago. Eszena oso gogorak ikus daitezke. Pobrezia beste leku askotan ere aurki daiteke kontinentean zehar, baina duintasuna daukaten pobreak dira. Batez ere bertako jatorrizko amerikarrak dira.

Baldintza oso gogorretan bizi dira, ez baitizkiete beraien hizkuntza eta kultura errespetatzen, baina duintasuna mantentzen dute.



DATUAK:

Bidaiaren hasiera: 2003ko Irailaren 3an. Argentinako Cordoba estatutik.

Bidaiaren amaiera: 2004ko uztaila. Antigua (Guatemala).

Iraupena: 11 hilabete.

Igarotako herrialdeak: Argentina, Txile, Bolibia, Peru, Ekuador, Panama, Costa Rica, Nicaragua, Honduras, El Salvador eta Guatemala.

Kilometroak bizikletan: 11.000 km.

459 ikasle matrikulatu dira aurtengo ikasturtean Heziketa Zikloetan

Batxilergoan, 195 ikaslek eman dute izena

2004-2005 ikasturtean 459 ikasle matrikulatu dira Heziketa Zikloetan, iaz baino 191 gehiago, hain zuzen ere. IMHn eta Elgoibarko Institutuan egin daitezke Heziketa Zikloak. Bi ikastetxe hauek aukera desberdinak eskaintzen dituzte. Alde bati erdi mailako zikloak dauzkagu, eta bestetik goi mailakoak. LOGSE Batxilergoari dagokionez, 195 ikasle matrikulatu dira aurtengoan. Ikastolan eta Institutuan egin daitezke ikasketa hauek. Matrikulazio datu hauek guztiak, ondorengo tauletan bildu ditugu.

LOGSE

| Ikastola | ikasleak |
|------------|----------|
| 1. maila | 32 |
| Institutua | ikasleak |
| 1. maila | 73 |
| 2. maila | 90 |
| Guztira | 195 |

INSTITUTUA

| Erdi mailako Heziketa Zikloak | ikasleak |
|------------------------------------|----------|
| Ibilgailuen Elektromekanika (Auto) | 35 |
| Karrozeria (Auto) | 31 |
| Erizaintzako laguntza osagarriak | 34 |
| Merkataritza | 22 |
| Goi mailako Heziketa Zikloak | ikasleak |
| Administrarritza eta finantzak | 33 |
| Automozioa | 44 |
| Ingurugiro osasuna | 8 |
| Guztira | 207 |



IMH

| Erdi mailako Heziketa Zikloak | ikasleak |
|---|----------|
| Mekanizazioa | 38 |
| Instalazio eta mantenu elektromekanikoa | 19 |
| Goi mailako Heziketa Zikloak | ikasleak |
| Proiektu mekanikoen garapena | 60 |
| Mekanizazio bidezko produkzioa | 56 |
| Industri ekipoen mantenimendua | 79 |
| Guztira | 252 |

CSMC Tianjin, Proschools eta IMHk kolaborazio hitzarmena sinatu dute

Liu Xue Jian, CSMC Tianjin Kontseiluko Presidenteak, Nagore Irureta, Proschools-eko Zuzendari Gerenteak eta Joxean Egaña Makina Erremintaren Institutuko Zuzendariak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten joan zen irailaren 22an, Elgoibarko udaletxeko Areto Nagusian. Proiektuaren lidergoa Proschools-ek darama, (AFMk sortutako partzuegoa), eta helburua, Tianjin Ikastetxe Teknikoa handitzea, egokitzea eta Prestakuntza Iraunkorrek saila martxan jartzea da.

Migel Anjel Mujika alkate ordeak ongi etorria egin ondoren, zuzendari eta enpresariak osatutako taldeak IMHn jasotako formazioa zuten eta egonaldian zehar izandako harrera ona eskertu zuten. Bestalde,

euskal erakundeek positiboki baloratu zuten proiektuak Txinan duen eragina eta ekintza mota hauek nazioarteko harremanetan duten garrantzia gogoratu zuten, izan ere, ekoizle euskaldunak Txinako merkatuan sartzen laguntzen baitu.



Piraten Jaialdia izango da gaur, Plaza Handian, Kiribilkaren eskutik

Elgoibarko Izarrak antolatutako Kiribilka programaren barnean, Piraten Jaialdia ospatuko da gaur, arratsaldeko 17:30ean, Plaza Handian. Hasiera batean joan zen ostiralean egiteko asmoa zeukaten, baina eguraldi txarra egin zuenez, atzeratu egin da.

Antzerki txiki batekin ekingo diote jaialdiari. Ondoren, piraten munduari loturiko jolasak, abestiak eta dantzak ikasiko dituzte. Eskulan txikiren bat ere egingo dute, eta azkenik, altxorren bila ibiliko dira Plaza Handira gerturatzen diren haurrak.

Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketaren Finala ospatuko da bihar, urriak 2, Mendaron

Partaideen berezko izaera sortzailea sustatzea da helburua

Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) antolatuta, Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketaren Finala ospatuko da bihar Mendaron. Goizeko 10:00etan hasita, lehiaketan parte hartu duten hamar graffiti onenak hormara eramango dira. Mendaroko txoko desberdinetan hormak zuritu eta prestatu dira graffitiak marrazteko, eta arratsaldeko 17:00etan sariak banatuko dira. Guztira, 1.200 euroko lau sari banatuko dira. Graffitiak margotzeko gaia euskara izango da, eta partaideek teknika libre erabiliko dute marrazteko. Lehiaketan Euskal Herriko gazte euskaldunek hartuko dute parte, eta honekin batera, espainiar estatuko graffitigile ezagun batzuek, Mendaroko pilotalekuko fatxada margotuko dute, graffiti erakustaldi bat eginez.

Helburua

Lehiaketa hau Gazte Sortzaile Sarien baitan antolatu du Topaguneak, eta bere helburu nagusia gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa gizarteratzea da.



Egun osoko jaialdia

Lehiaketaren aitzakiarekin, bestalde, egun osoko jaialdia antolatu du Topaguneak, eta bertara ikusle gisa hurbiltzen den orok hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango du.

EGITARAUA

10:00-17:00 Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketaren finala.

graffiti erakusketa
Graffiti tailerrak
Scratch eta DJ tailerra
Musika ordenagailu bidezko tailerra
Perkusio tailerra
Break dance tailerra
Skate tailerra

17:00 Sari banaketa:

17:30 Erakustaldiak:
DZren musika erakustaldia
Scratch erakustaldia
Skate erakustaldia
Perkusio erakustaldia
Break dance erakustaldia

18:00 M.A.K taldearen kontzertua

18:30 INTXAURBREAK dantza taldea, Aritz Sound System eta DZren musikak lagunduta.

19:00 Seletah Sound System-en kontzertua .

20:00 Kadun Karama-ren afrikar doinu eta dantzak.

Oskar Palomok irabazi zuen XXX. Deba Bailerako Perretxiko Lehiaketa

Karakate Mikologia Elkartek antolatuta Deba Bailerako XXX. Perretxiko Lehiaketa ospatu zen joan zen igandean, irailaren 26an. 15 urtetik beherako gaztetxoek osatutako 27 taldek hartu zuten parte lehiaketan, eta bigarren urtez jarraian Oskar Palomo izan zen irabazlea. Entoloma Sinuatum sorta onenaren saria ere berak jaso zuen, eta Amanita Phalloides sorta bereziaren saria Asier Mauleon eta Julen Sanchezek irabazi zuten.

Bestalde, Bernabe Mujika saria Aranzadi Elkarteko Jose Luis Albizuri (Golindo) eman zioten.

1.400 gramoko onddoa!

Horixe izan zen Emiliano de Pablo elgoibartarrak joan zen astelehenean Aia



(San Migel) inguruetako basoetan aurkitu zuen ezustekoa: 1,4 kilotako onddo bikaina, alegia. "Bolhetus Edulis" da onddo honen izen zientifikoa eta Emilianok azaldu digunez, tamaina honetako onddo gutxi



ikusten dira. Duela bi urte antzerako bat aurkitu omen zuen, baina ez horren handia. Domekan Plaza Handian ospatu zen perretxiko lehiaketan ere ez omen zuen horrelakorik ikusi.

Itxaropena Abesbatzak jendea behar du

Itxaropena Abesbatzak dei bat egin nahi dio Elgoibarko herriari. Gaur egun arte, 14 pertsonak osatzen zuten abesbatza, baina azkenaldian izandako bajen ondorioz, 10 partaideko abesbatza bihurtu da. Jende falta aspalditik daukaten arazoa da, eta Itxaropena Abesbatzaren jarraipena kolokan dago. Itxaropena Abesbatzak azken deialdi bat egin nahi die herritarrei. Izena emateko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik.

Abesbatzako ustez, Elgoibarren honelako kultur taldea egoteak berebiziko garrantzia dauka, izan ere, herriari aberastasun handia ematen baitio: "pena handia izango litzateke jende faltagatik abesbatza hau itxi behar izatea".



Abesbatzako partaide izan nahi dutenek, ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 943 74 13 39 (Ane) edo 636 75 67 57 (Aitor).

Tomas Crespo sendagilea hil zen abuztuan



Elgoibarren urte askotan lanean aritutako Tomas Crespo sendagilea hil zen joan zen abuztuaren 30ean. Tomas Crespo Burgosen jaio zen 1928an. Medikuntza ikasketak Zaragozan egin zituen, eta bertan ezagutu zuen 1957an bere emazte bihurtuko zen Margarita Trevijano. 1963. urtean etorri zen Elgoibarrera. Gure herrian egon zen bitartean, enpresako medikuntzan espezializatu zen, eta Elgoibarko hainbat enpresatako sendagilea izan zen, besteak beste, Jarbe, Lagun... 65 urte zituela jubilatzen.

CCOOn egoitza eta bi banketxe eraso zituzten molotov koktelekin

Ezezagun talde batek, Errosario kaleko CCOOn egoitza, Kutxa eta Baskonia banketxeak eraso zituzten molotov koktelekin, irailaren 23ko gauean. Kalteak ez ziren larriak izan CCOOn egoitzan eta Kutxan, koktelek ez baitzuten su hartu. Baskoniako kutxazain automatikoa, ordea, erabat kiskalita geratu zen. EA eta PP Alderdi Politikoek eta ELA eta UGT sindikatuek sabotaje hauek salatu zituzten.

Lapurretak

Gau berean, Landa harategian eta Salento pizzerian lapurreta ahaleginak egin zituzten ezezagun batek. Landa harategiko kristala hautsi arren, ezin izan zuten barrura sartu,



Salento pizzerian egin zuten bigarren saiakera. Bizilagun bat leihora atera zen, eta lapurrak korrika ihes egin zuten Pedro Muguruza aldera. Bertan auto bat lapurtu, eta alde egin zuten.

Informazio teknologiei buruzko mintegiak langile autonomo eta mikroenpresentzako

Miramón Enpresa Digitalak antolatuta, datorren urriaren 7an hasiko da IMHn informazioaren teknologiei buruzko mintegi-zikloa. Autonomo eta mikroenpresei teknologia horiek beren negozioetan izan ditzaketen onuren berri ematea da helburua. Lehenengo mintegia administrazio publikoetako tramitazioak on-line egiteko moduaren ingurukoa izango da.

Guztira 8 mintegi eskainiko dira. Bakoitzak bi orduko iraupena izango du, eta doan izango dira.

Mintegi guztiak Elgoibarko IMHn egingo dira. Izena eman nahi dutenek edo informazio gehiago jaso nahi dutenek 902 252 595 telefonozenbakira dei dezakete, edo mezua bidali cursos@miramondigital.com helbidera.

"Tertuliak" egitasmoa azaroan hasiko da

Aurreko ikasturteetako arrakasta ikusirik, aurtengoan ere, "tertuliak" egitasmoa martxan ipintzera doa Elgoibarko Izarra, Udalaren eta herriko bi euskaltegien laguntzarekin.

Azaroan hasi eta ekainera arte, astean behin, euskaldun zaharrak eta berriak elkartuko dira, ordubetez, euskaraz berba egiteko. Izena emateko azken eguna urriaren 15a izango da.

Tertulietan parte hartu edo informazio gehiago nahi dutenek (euskaldun zahar zein berri), Elgoibarko Izarrara (943 74 16 26 telefonora, Amaia) edo bi euskaltegiatiko batera deitu dezake: (Udal Euskaltegia: 943 74 27 31 - AEK euskaltegia: 943 74 13 32).

Espainiako Gobernuak "erlijioa" ikasgaien zerrendatik kentzeko proposamena egin du ERLIJIOA IKASTETXEETAN EMATEAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDE?



OSKAR GARCIA
32 urte, peoia

Kontra. Erlijioak ikasgai bezala ez du ezertarako balio. Nik beti izan dut ikasgai moduan, eta katxondean hartzen nuen. Hobe izango litzateke erlijio guztien historia erakustea.

MARIA JESUS ARCE
45 urte, etxekoandrea

Kontra. Ez dute inor derrigortu behar erlijio zehatz bat ikastera, norberaren ideiak eta sinismenak errespetatu behar dira. Asko jota, aukerako ikasgaia izan beharko litzateke.



DORI ETXARRI
57 urte, etxekoandrea

Ez alde eta ez kontra. Nire ustez aukerako ikasgaia izan beharko litzateke erlijioa. Ez da debekatu behar, baina derrigortu ere ez. Ikasle bakoitzak aukeratu dezala.

LEILA RODRIGUEZ
24 urte, administraria

Kontra. Erlijioa norberaren eremu pribatuan sartzen da, eta bakoitzak berea aukeratzeko eskubidea izan beharko luke. Ikastetxeetan aukeran utzi beharko lukete.



MANUEL PEREZ
21 urte, ikaslea

Derrigorrezkoa izatearen kontra nago. Pilar Ikastetxean ikasitakoa naiz, eta beti izan dut erlijioa derrigorrezko ikasgai bezala, baina nire ustez aukeran utzi beharko lukete.

MARIA LINERO
45 urte, zaintzailea

Ez bata, eta ez bestea, baina ez litzateke derrigorrezkoa izan beharko. Beste ikasgai batzuk eskaini beharko lirarteke, eta ikasle bakoitzak aukeratzeko eskubidea izan beharko luke.





umeentzako jantziak

Punta puntako markak

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

DKNY
KENZO
TIMBERLAND
ELLE
IKKS
NOLITA



JOSE pinturak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel.: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

“Epa” iragarki arrakastatsuan parte hartu ostean, ezaguna bihurtu da Andoni Agirregomezkorta (33 urte). Donostian jaio eta Erreterian bizi den morrosko hau ez da iragarkietara bakarrik mugatu. Duela 8 urte hasi zuen antzerki ibilbidea, baina telebistan ere ikusi dugu, “Jaiak” saioan lehendabizi eta “Vaya Semanita” arrakastatsuan oraintsu.

Andoni Agirregomezkorta

Aktorea

Publizitatea, telebista, antzerkia. Ezin al zaio ezeri ezetzik esan?

Egia da bai. Dena probatu eta nolabait muturra sartu behar da.

Orain arte zure alde umoretsua erakutsi diguzu?

Espresiboa naizela diote eta paper umoretsuetan ikusten naute naturalago. Dena dela, beste erregistro batzuk lantzeko aukera handirik ez didate eman oraingoz.

Vaya Semanita telebista saio arrakastatsuan hasi berri zara.

Bai, denboraldi honetan hasi naiz. Jendeak nitaz dakien bakarra “epa” da, baina zerbait gehiago banaizela erakusteko gogoia dut.

Zein da saioaren arrakastaren zioa?

Saio honekin gure buruaz barre egiten ikasi dugu euskaldunok. Batzuetan gainera, urte luzez tabuak izan diren gaiekin, txantxa giroan etxean bakarrik erabili ahal genituenekin, ausartu da txistek egitera.

Zer ondorio izan ditu zuretzat “Epa” iragarkiak?

Errodaje modukoa izan da gerora gainera etorriko zaidanerako, ezagutzera eman nau eta kaletik noala “sufritu” beharra daukat. Lankideak eta zuzendariak nire lanaz ohartu zitezten balio izan dit.

Udan “Jaiak” saioan ibili zara. Nolako esperientzia izan da?

Kaleko antzerkia egina nuen eta baditu antzekotasunak. Zirikatzaile papera egiten nuen eta gustura aritu nintzen. Hala ere, momentu zailak izan ziren. Gidoiak hala exijituta, Real Madrileko kamisetarekin egon nintzen Anoetan eta bat edo besteri ez zion batere graziaz egin, batzuentzat ukiezineko erlijioa baita futbola. Elgoibarren ere izan nintzen eta berezia izan zen, bertan lagunak baitauzkat. Gaztetan bizpahiru aldiz izana nahiz jaietan eta asteburu bat baino gehiago pasa dut Elgoibarren.



MOTX-MOTXIAN

Definitu zure burua 3 hitzetan

Txantxazalea, umoretsua eta nire buruarekin exijientea

Bertute bat?

Konstantzia

Akats bat?

Perfekzionista izatea

Inoiz ikasiko ez duzuna?

Fisika eta kimika

Edari bat?

Kalimotxo

Zerik lotsatzen zaitu?

Jendeak nirekiko daukan mirespenak kalean geratzen nautenean

Parrandarako lekurik onena?

Txosnak

Miresten duzun aktore bat?

Robert de Niro

Bidaia bat nora?

Txileko San Pedro de Atacama herrira

Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Eskuak

Botila erdi hutsa ala erdi bete?

Erdi bete ikusten saiatu behar da

Praktikatuko al zenioke eutanasia familiako bati?

Bai

Euskal Herrian larrutan egitea ezinezko al da?

Nire esperientzian oinarrituz, bai

“Jendeari ‘epa’ baino zerbait gehiago naizela erakusteko gogoia dut”

IRAKASLEARI AZTERKETA

NAIARA ARRILLAGA

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA



- 1 Askotan zigortzen al zintuzten ikasle zinenean?**
Ez, ez daukat zigortu ninduten oroitzapenik.
- 2 Joango al zinateke ikas bidaiara ikasleekin?**
Bai, polita izango litzateke. Umeekin txangoak egiten ditugu, eta oso ondo pasatzen dugu.
- 3 Azterketetan txuletarik erabiltzen al zenuen?**
Bai, eta ez ninduten sekula harrapatu.
- 4 Zein aitzakia jartzen zenion irakasleari etxeko lanak egiten ez zenituenean?**
Normalean beti egiten nituen.
- 5 Eta zuri zein jartzen dizute ikasleek?**
Haur Hezkuntzan ez dugu etxeko lanik bidaltzen.
- 6 Ikasleen galdera guztiak erantzuteko gai zara?**
Beti erantzuten diet, isilik gelditzea baino hobea da.
- 7 Zein zen ikasle garaian gutxien gustatzen zitzaizun ikasgaia?**
Hizkuntzak. Ingelesa, gaztelera... gogorrak ziren.
- 8 Zein zigor jartzen diezu ikasleei?**
Gaizki portatzean, bazterrean eserita jartzen ditut, baina minutu erdiz, bestela negarrez hasten dira.
- 9 Irakasle ez bazina, zer izango zinateke?**
Ostalaritza ikasi nuen, eta sukaldari lanetan ibilitakoa naiz. Zerbitzari lana gustatzen zait asko.

NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



ANE BEITIA
ama

GALDERAK

1. Zein izan da amak/semek egin dizun azken oparia?
2. Asteburu batetarako planik hoberena?
3. Inork ikusten ez zaituenean egiten duzun pekaturen bat?
4. Hondartza ala aire libreko igerilekuak nahiago?
5. Zein liburu daukazu mesanotxean?
6. Iratzargailuak jotzen duenean, zer da burutik pasatzen zaizun lehengo gauza?
7. Munduko diru guztia izango bazenu, zer egingo zenuke?
8. Elgoibarko alkatea bazina, zer egingo zenuke?



KOLDO GOMEZ
semea

- 1 Arropak eta umeen argazki bat.
- 2 Familia guztia elkarrekin ateratzea, edozein tokitara.
- 3 Lasai egon, zigarro eta zerbeza batekin ahal bada, edo kafetxo bat hartzen.
- 4 Hondartza, hala ere, ez daukat bertara joateko denbora handirik
- 5 Orain bat ere ez. Azkena "El codigo Da Vinci" irakurri dut.
- 6 Hamar minutu gehiago, zein azkar pasatu den gaua! Baina berehala jaikitzen naiz berriz lo hartu aurretik.
- 7 Dena gastatu, diruak ez du ezertarako balio, gastatzeko ez bada.
- 8 Lekua balego, aparkalekuak, jolastokiak, berdeguneak... Elgoibar argiago bat.

- Kamioi bat **1**
- Debako hondartzara joatea **2**
- Telebista ikustera joan **3**
- Hondartza **4**
- Animalie buruzko ipuin bat **5**
- Bost minutu gehiago, mesedez! **6**
- Diru guztia aurreztu **7**
- Herritarrei aginduak eman **8**

Txiki inkesta

Zein izan da zure azken amesgaiztoa?

12 urte Maria Hernandez

Trenbidean soka batez loturik nengoela, trena nire gainetik pasatzen zela amets egin nuen.



11 urte Maider Lazkano

Autoan istripu bat izan ostean, ospitalean nengoen. Handik irteteen otso bat neukan atzetik korrika, eta mendian behera erori nintzen.



11 urte Naia Membrillera

Nire logelan suge pozoitsuak sartzen zirela amets egin nuen.



12 urte Belen Cordon

Nire irakasle bat neskaz jantzita etorri zen eskolara, eta klasea ematen ari zela, aurpegia makilatzen hasi zen.



Zer da metrosexuala izatea?

Oihane Gomez 12 urte

Mutil edo gizon bat ondo prestatzea, edo makilatzea gustatzen zaion gizona izatea.



Amaia Lertxundi 11 urte

Mutilak neskak izango balira bezala zaintzea: kremak ematea, kolonia botatzea...



Sandra Revert 11 urte

Bere gorputza izugarri zaintzen duen gizona, eta dotore egotea gustatzen zaiona.



Nora Landaluce 11 urte

Gorputza zaintzeaz gain, solariumera joan, makilatu eta lifting-a egiten dituen gizona da metrosexuala.



Paristik natorren *artista bat naiz ni...*

Elena Ferreiro, Araceli Pais, Ane Arakistain eta Miren Viñé
L.H. 4. maila - Herri Eskola



Kromoak

Behin batean, Ainara astebete gaixorik egon ondoren eskolara joan zen. Bertara iritsi zenean, dena aldaturik zegoela sumatu zuen. Amesgaizto bat zirudien.

Agian galdetuko duzue zer zen aldatu zena, ba, kromoak behar zirela edozertarako. Kromoek, diruak bezalako funtzioa zuten. Denerako beharrezkoak ziren: ura edateko, eskolara sartzeko, bazkaltzeko...

Ainara negarrez hasi zen, kromorik gabe baitzegoen. Lagunek esan zioten lanean hasi behar zela, eta neskatila langilea zenez, lanean hasi zen.

lan mordoan egin ostean, kromo ugari bildu zituen, eta bizitza arrunta egin ahal izan zuen. Hala ere, egun batzuk beranduago, eskola berriro normaldu zen.




lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa

**Zer dago faltan,
soberan edo
aldatuta?**



Erantzunak BARREnera ekarri edo
 posta elektronikoz bidali:
barren@topagunea.com



Aurreko lehiaketako irabazlea: **Amaia Astigarraga**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA Elhuyar-ek eskainitako mahai jokoa
 ("GIPUZKOA ZURE ESKU" MAHAI JOKOA + CD-ROMa)



14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

EZKONTZAK

Manuel Roman eta Iratxe Trinidad
(Irailak 11)

Garikoitz Martinez eta M^a del Mar Perez
(Irailak 18)

Alberto Diez eta Zuriñe Gurrutxaga
(Irailak 18)

Iñigo Aranbarri eta Junkal Arriola
(Irailak 18)

Pablo Lizundia eta Sonia Vazquez
(Irailak 18)

J. Carlos Miravalls eta Nagore Palacios
(Irailak 19)

J. Fernando Fernandez eta Begoña Medina
(Irailak 25)

Oscar Rey eta Maria del Mar Boo
(Irailak 25)

Alberto Lorenzo eta Nagore Etxeberria
(Irailak 25)

Jose Luis Ansola eta Aranzazu Beristain
(Irailak 25)

HILDAKOAK

Bizente Etxabe,
79 urte, irailak 1

Julia Aramberri,
76 urte, irailak 3

Vicente Roman,
77 urte, irailak 3

Migel Ubiria,
84 urte, irailak 5

Jose Kruzelegi Arocena,
82 urte, irailak 6

Sotera Zubiaurre,
95 urte, irailak 18

IRAILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA

KUTXAK ·
TRASLADOAK
·KOROAK

NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

JAIOTAKOAK



Maddalen
Oñederra Gonzalez,
irailak 9.
Mikel eta Ainara

Aner Vallejo
Barriada,
irailak 17.
Jose Manuel eta
Virginia



Ihintza Gurrutxaga
Larrañaga,
irailak 11.
Jose Ramon eta
Aitziber



Ane Leonardo
Morales,
irailak 10.
Gorka eta Belen

Giro bikaina eta jende ugari Aiastia auzoko San Migel jaietan

Gazteen Egunarekin hasi ziren Aiastia auzoko San Migel jaiak joan zen ostiralean, hilaren 24an. Euria izan zen egun honetako protagonista nagusia, eta arratsalderako antolatuta zegoen bizikleta gaineko poteoa bertan behera gelditu zen. Gavean hala ere, gazte mordoak bildu ziren Murkaikupe frontoian disko festa eta strepteasa ikusteko. Asteburuan eguraldiak hobera egin zuen, eta giro bikaina izan zen gainontzeko ekitaldietan. Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketa izan zen larunbateko ekintza nagusia, eta igandean idi probak izan ziren. San Migel jaiak irailaren 29an bukatu ziren, San Migel Egunean hain zuzen ere, auzotarren arteko pilota partidu eta afariarekin.



1. Disko Festa

Euria eta hotza izan ziren Gazteen Eguneko protagonistak, baina hala ere, jende ugari bildu zen San Migelen disko festaz gozatu, eta goizalean streptease-a ikusteko. Hotz egin arren, igo zen tenperatura Murkaikupe frontoian.



AITOR

2. Artzai Txakur Txapelketa

Bigarren urtez jarraian Jose Ramon Orbeago eta "Alai" txakurra izan ziren Euskal Herriko Arraza Libreko Artzain Txakur Txapelketako irabazleak. Bigarren lekuan Peio Pagadizabal eta "Alai" txakurra sailkatu ziren.



3. Idi probak

Jende ugari bildu zen igandean idi probak ikusteko. Erlete (Arrua) izan zen irabazlea 47 plazarekin. Bigarren lekuan Garro (Etxebarria) gelditu zen 43 plaza, zinta bat, lau metro eta 75 zentimetrorekin. Hirugarrena Lopategi (Billela) izan zen, 41 plaza, metro bat eta 98 zentimetrorekin.



4. Pilota partiduak

Auzotarren arteko XIX. Pilota Txapelketan Eneko eta Fernando Loiola izan ziren txapeldunak. 22-13 irabazi zioten German Telleria eta Iker Txurrukari.

Haritz Euskal Dantzari Taldeak "Pas de Basque" ikuskizunean parte hartuko du Ordizian

Bestalde, uda oparoa izan dute Haritzekoek ikuskizunei dagokienean

Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen "Pas de Basque" ikuskizunean parte hartuko du Haritz Euskal Dantzari Taldeak asteburu honetan, urriaren 2an, hain zuzen ere. Ordiziako Beti-Alai frontoian eskainiko dute saioa 22:30etik aurrera.

Bestalde, aurtien ere uda oparoa izan du Haritz EDTk eta hainbat lekutara eramane dituzte euskal dantza eta doinuak. Uztailaren 10etik 14ra esaterako, taldeko bi kide Kanariar Uharteetan izan ziren 16. World Conference ISME (International Society for music Educacion) delakoan parte hartzeko. Euskal Herritik eskola ezberdinetako 55 lagun joan ziren Tenerifera euskal musikaren erakustaldia egitera eta Haritzeko bi kideak Inazio Bereziartua Musika Eskolaren izenean joan ziren. Bi ekitaldi eskaini zituzten, Tenerifeko Plaza de Españan bata eta Los Paragüitasen bestea. Uztailaren 23an Elgoibarko Nazioarteko XVIII. Folklore Jaialdian parte hartu ostean, Geronako Arbucies herrian egon zen Haritz EDTko ordezkari bat uztailaren 30etik abuztuaren 1era bitartean. Bi saio eskaini



zituzten bertan eta harrera oso ona izan zituela aipatu digute.

Hurbilago, Sallobenteko jaietan ere parte hartu zuten abuztuaren 10ean eta abuztuaren 16an, berriz, Debako Azkue auzoko jaietan Gure Kai taldekoekin batera. San Roke dantzaren eta Soka dantzaren erakustaldia egin zuten bertan. San Bartolome jaiak baino lehenago

Salamankako Alba de Tormes herrian egin zuten dantza erakustaldia. Madrilgo, Toledoko eta Galiziako dantza taldeekin batera aritu ziren. Etxera itzuli ostean, Arantzazun (irailaren 9an) eta Lasturren (irailaren 18) aritu dira. Joan zen asteburuan, berriz, Aiastia auzoko san Migel jaien barruan eskaini zuten urteroko dantza saioa.

"A ze pare!" Maskarada Antzerki Taldearen eskutik gaur, Herriko Antzokian



Gauko 22:15etik aurrera Maskarada Antzerki Taldearen azken ekizpena ikusteko aukera izango dugu Herriko Antzokiko taula gainean. Antzerki konpainia beteranoak 1980an hasi zuen ibilbide arrakastatsua "Jimmy pottolo eta zapataria" antzezlanarekin. Ordudanik hamaikatxo lan antzeztu dituzte han eta hemen ("danbor magikoa" haur antzerkia, "Marxkarada" ikuskizun musikala, "Ernesto izatearen garrantzia" komedia, "Nerudaren postaria", "Ikaro", "Kontenedore baten istorioak", e.a luze bat). Oraingo honetan, Manuel Hidalgo (Iruñea;1953) kazetari eta idazle ospetsuaren "La guerra del sofa"

liburuaren egokitzapenarekin datoz Elgoibarrera, "A ze parea" antzezlanarekin, hain zuzen ere.

Sinopsia

Sarritsutan, bikotekideen arteko tirabiren lekuko izaten dira etxeko txokorik "goxoan", sofa, komuna, edo logela. Umore zorrotzez gatz-piperturik, komedia honek erritmo alaiak erakusten ditu elkar maite eta, aldi berean, gogait egiten duten ohe lagunak betiereko eztabaida gaiak, eguneroko bizitzaren lapikoan egosiriko saltsa. Maria Dóndiz, Katrin Schegel, Andoni Agirregomezkorta eta Asier Hormaza arituko dira aktore lanetan.

Mintxetako futbol zelai berritua inauguratu zuten agintariek

664.500 euroko kostua izan du belar artifizial berria jartzeak

Marivi Agirregomezkorta alkatea; Jose Mari Oruesagasti diputatua eta Pedrusko futbol taldeko presidentea; Jose Luis Insausti, C.D. Elgoibarko presidentea eta Benantzio Otaegi parrokoak parte hartu zuten Mintxetako futbol zelai berrituaren inaugurazioan joan zen zapatuan, hilaren 25ean. Haundi eta Laudio futbol taldeek jokatu behar zuten partidua aprobetxatu zuten agintariek Mintxetako belar artifizial berria inauguratzeko. Haritz Euskal Dantzari Taldeko kide batek dantzatu zuen aurrekuarekin eman zitzaion hasiera ekitaldi xumeari. Ondoren, Benantzio parrokoak instalakuntza berriak eta bertaratutakoak bedeinkatu zituen. Azkenik, eta zinta moztu ostean, ohorezko sakea egin zuen Marivi Agirregomezkorta alkateak. Hiru hilabetetan bukatu ditu lanak Poligraf Iberica eta Amsa enpresek sortutako aldi baterako enpresa elkarteak. Guztira, 664.500 euro gastatu dira belar artifizialeko zelai berria jartzen.



Marivi Agirregomezkorta alkateak zinta moztu ondoren ohorezko sakea egin zuen.

Berdeguneak ureztatze sistema berria ere badauka, aurrekoa baino askoz berritzaileagoa eta eraginkorragoa. Aurreko belarrak 11 urteko bizi iraupena izan zuen, eta honek ere, hainbat partida

eta jokalariei ezagutu behariko ditu. Zelai berrira ohitzen izango dute lanik gehien Elgoibarko futbolariak. Haundiak adibidez, husnako berdinketa bakarrik lortu zuen Laudioen aurka.

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

AROCENA - OLIVARES

ABOKATUAK

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Ahaztu zaituzte komunitateek dakartzaten gestio lanetaz eta gozatu zerbitzu tekniko eta juridiko oso batez.

- Juntan antolamentua
- Akten idazketa eta komunitatearen liburura transkripzioa.
- Lehendakariari aholkuak.
- Kobraketan kudeaketa.
- Diru-laguntzen tramitazioa.

Utzi ezazu komunitateen gestioa profesionalen esku!

San Frantzisko, 7 – 1º (Elgoibar)

Tel.: 943 74 24 04 faxa: 943 74 10 73

Jr.arocena@euskalnet.net

55 mendizalek egin zuten Valderejo eta Herran arteko travesia

Arabako eta Burgoseko Aprobintzien mugan dagoen Valderejoko parke naturala ezagutu zuten 55 lagunek Morkaiko Mendizale Elkarteari esker joan zen domekan, hilaren 26an. Primerako eguraldia lagun, parke guztiari itzulia eman ziotela adierazi digute. Reibieira herri abandonatuaren inguruko zelaietan bazkaldu ostean, Purn errekaaren kanoian barrena Herran herrira iritsi ziren ibilaldi lasaiari amaiera emanaz.

Morkaikorekin Kilometroetara

Orion eta Zarautzen ospatuko da Kilometroak 2004 jaia asteburu honetan (urriak 3). Morkaiko Mendizale Elkartek bertara oinez joateko irteera antolatu du. Goizeko 6:30ean aterako dira Plaza Handitik eta gutxi gorabehera 14:00etarako ailegatzea espero dute. Ez da izenik eman behar eta itzulera bakoitzak bere kontura egin beharko du.

Astebukaera Iratiko basoan

Bestalde, Morkaikoren hurrengo irteera Iratiko basora izango da bertan asteburua pasatzeko, urriaren 30etik



azaroaren 1era bitartean. Aterpetxe bihurtu duten Zuberoako La Chateau Libarrenx, XIX. mendeko jauregi ederrean hartuko dute ostatu urriaren 4tik, astelehenetik, aurrera izena ematen dutenek. Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte eta 70 euro bazkide ez direnek. Trukean Euskal Herriko tokirik magikoenetako bat, Iratiko basoa, udazkenean gozatzeko aukera. Plazak mugatuak direnez, izen-emateko ordenaren arabera gordeko da lekua.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 1 – Laudio 1 (3. maila)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Urnieta 7 – lagunak 22 (Nag.)

Lazkao 22 – Lagunak 17 (Nag.)

Zumaiako 22 – Lagunak 11 (Jub.)

Lagunak 22 – San Esteban 1 (Kad.)

Lagunak 22 – Hernani 7 (Jub.)

Idarraga kafeak 8. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 04/05

JOKALARIA PUNTUAK

| | |
|-------------------------|---|
| 1- Mikel Calvo | 6 |
| 2- A. Arenas | 5 |
| 3- I. Oruesagasti | 5 |
| 4- J. Arrasate | 4 |
| 5- J. Igartua | 3 |
| 6- Javi Gomez | 3 |
| 7- Guinea | 3 |
| 8- Ibai Gonzalez | 3 |
| 9- Navarrete | 2 |
| 10- Mandiola | 2 |
| 11- Iribar | 2 |

AGENDA

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 1

21:00 Lagunak – Tartaloetxe (Jub.)

21:45 Lagunak – Altzatarra (Nag.)

22:30 Lagunak – Eibar (Nag.)

Eskubalola, Kiroldegian

Zapatua, 2

16:00 Pagoaga – Askartza (Kad. nes.)

17:45 Cometel – Askartza (Jub. nes.)

Domekia, 3

11:30 ANTT Elg. – Bergara (Sen. mut.)

David Condek irabazi zuen Ehiza Xeheko Txapelketa 11 faisai bota ostean



ARTOR

Joan zen zapatuan, irailaren 25ean, ospatu zen La Union Ehiza eta Arrantzu elkarteak urtero antolatzen duen Ehiza Xeheko Txapelketa. Eguraldi onak erakarrita 27 ehiztarik eman zuten izena eta Urnabitza mendiaren inguruan aritu ziren ehizan. Antolakuntzak 65 faisai eta eper bat askatu zituen mendian eta txapelketaren amaieran 55 faisai botatzea lortu zuten ehiztariek. Eperaren berririk inork ez zuela izan azaldu digute. Sailkapenari dagokionez, azkenaldian ohikoak bihurtu diren bi

ehiztari igo ziren beste behingoz podium-era. David Conde, Sigmako ehiztaria izan zen onena 11 faisai bota ostean eta Txomin Rogel sailkatu zen bigarren postuan 8 faisairekin. Imanol Garaizabal izan zen hirugarrena 6 faisarekin eta laugarren postuan, berriz, irabazlearen anaia, Carlos Conde sailkatu zen 4 faisai ehizatuta. Hain zuzen ere, laukote honek parte hartuko du datorren zapatuan, urriaren 2an, Eskualdeko Ehiza Xeheko Txapelketan, Mendaro eta Eibarko ehiztariekin lehiatzen.

Lana

ESKAERA

- ◆ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Igandeak barne. Esperientzia daukat. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**
- ◆ Neska dependienta lanetarako prest. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, baserri lanak edo nagusiak zaintzeko prest ☎ **676382223/943531987**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **645 73 51 16**
- ◆ Sistema Informatikoen Administrazioa ikasi duen persona lanerako prest. ☎ **680 23 76 31**
- ◆ Haurtzaindegian esperientzia duen mutila haurrak zaintzeko prest. ☎ **943 03 36 92**
- ◆ Emakumea goizez edozein lan egiteko prest. Euskalduna, kobxa daukat. ☎ **690 798 545 (Iruñe)**
- ◆ Emakumea nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **610 69 95 32**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo kamarera lanetarako (esperientzia) edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 92 75 66**

- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **699 60 91 90**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne ☎ **626 91 49 04**

ESKAINTZA

- ◆ Asteazken zehar lan egiteko kamareroa behar da. ☎ **665 850 425**
- ◆ Kamarera behar da asteburuetan taberna-jatetxerako. ☎ **635751642**
- ◆ Jantoki eta barrako kamareroa behar da. ☎ **943 76 48 63**
- ◆ Soraluzeko Pil pilean aldzakariak kazetaria behar du egun erdirako. Kurrikuluma bidali: Pil Pilean Euskara Elkarte, 27 postakutxa, 20590 edo pilpilean@euskalnet.net ☎ **943 75 13 04**
- ◆ Ile apaindegirako langilea behar da, aldi baterako. Pelukerian ezagutza. ☎ **615705772/615703397**
- ◆ Elgoibarko jatetxeak sukaldaria eta kamareroak behar ditu. ☎ **943 74 12 30**

Etxebizitzak

- ◆ Logela alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**
- ◆ Pisua salgai Mendaron. Berria. Garaie eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ **686 045 321/943 74 15 21**
- ◆ Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **615 17 73 62 (Juan)**
- ◆ Pisua salgai Donostiako Amara auzoan. ☎ **943 42 21 45/943 42 41 04**
- ◆ Apartamentua eta lonja salgai Ean (Bizkaia). ☎ **639 47 47 39 (Manolo)**
- ◆ Atiko txikia alokatzen da Santa Ana kalean. ☎ **660 042 159**
- ◆ Etxea salgai. 3 logela, altzariekin, zaharberritua. ☎ **661 42 60 77**
- ◆ Pisu ekonomikoa hartuko genuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **699 60 91 90**
- ◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariekin. Denari kanpora. ☎ **625260939/943756205**
- ◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. ☎ **699 179 872/943 74 02 68**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitua, 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. ☎ **636 22 31 42**
- ◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. ☎ **627 603 437**
- ◆ Etxea osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **615 76 72 44**
- ◆ Pisua salgai Eibarren. Karmen kalean, igogailuarekin. ☎ **615719901 (Angelita)**
- ◆ Pisua salgai Mendaron. Berria. Altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna, trastero ☎ **609965395/650129605**
- ◆ Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, trastero. ☎ **943 74 41 85**
- ◆ Logela alokagai Sigman ☎ **659627356**

Salerosketak

- ◆ Gitarrarentzako pedaleda salgai. Zom 606. ☎ **943 74 32 94**
- ◆ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. ☎ **943741130/943 74 00 19**
- ◆ Bi bizikleta salgai: Trialeko Monti 219XMagura eta GT-02 De Free Estil. Prezioa adosteko. ☎ **680 74 40 53**
- ◆ Ibilitzeko zinta elektrikoa salgai. Nahiko berria. ☎ **943 74 14 94**
- ◆ Tokadorea salgai. Egurrezko bi kajoirekin. Fresno egurrezkoa. Egoera onean. ☎ **943 74 14 94**
- ◆ Errepiderako bizikleta salgai. Cannondale ALU 2.8 . 48-50 neurrikoa. Egoera onean. ☎ **943192571 (Moises)**
- ◆ Motorra salgai. Special 250. 4 urte. 1.700 euro. ☎ **665701370 (Eli)**

Partikularrak

- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira, goizez/arratsalde. 13 urteko esperientzia. ☎ **653722811/943743167**

Garajeak

- ◆ Garaje itxia salgai Madalatik gertu. ☎ **943 74 24 06**
- ◆ Madalako etxe berrien azpian 23m2ko garaje itxia alokatzen da. ☎ **605773453 (21:00etatik aurrera)**
- ◆ Garaje plaza komunitarioa alokatzen da San Roken, Aterpe inguruan. ☎ **653 73 94 67/943 74 33 90**
- ◆ Garajea alokatzen da Ikastola ondian. ☎ **943 53 16 48**

Bestelakoak

- ◆ Urrezko belarritako galdu nuen Santa Ana kaletik Plaza Handira bitartean. Koloretako hiru harri ditu: gorria, berdea eta urdina. ☎ **659 94 03 58**
- ◆ Urrezko domina topatu dut, liñaki izena daramana. ☎ **656 72 47 82**

Lokalak

- ◆ Madalako etxeen azpian 5,5m2ko trasteroa alokatzen da. ☎ **605 77 34 53**
- ◆ Lokala alokatzen da San Bartolome kalean. Ez du obra beharrik. ☎ **667 94 24 33 (gavez)**

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**




Nola egin online administrazio publikoekiko izapideak.

Internet eta Teknologia Berriei esker, denbora galtzea nola saihestu dezakezun azalduko dizugu. Orain zure etxe, bulego edo negoziotik egin ditzakezu administrazio publikoekiko izapideak, erosotasunez.

Sustatzaileak:



Antolatzailea:



Miramon
Expres Digital

Deba Barrena
urriak 7
ELGOIBAR
Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak
 ekartzeko azken eguna
 asteazken eguerdiko 13:30a da.

Agurrak

♦ Zorionak **Iñigo**, Zaletuen Mailako Valpergoko (Italia) aurre mundialera iritsi zarelako. Txapeldun!



♦ Zorionak **Ekaitz**, asteazkenean, hilak 6, 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, anaia losuren partez.



♦ Zorionak **Oihane** zure urtebetzean, eta muxu handi bat zure lagunen partez.



♦ Zorionak **Markel**, urriaren 3an, 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Hai-zearen partez.



♦ Zorionak **Jose Manuel**, urriaren 3an, 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, anaian partez.



♦ Zorionak **Maider**, hilaren 29an, 2 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, anaia Julenen partez.



♦ Zorionak **Ander**, atzo, hilak 30, 3 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, osaba Jabiren partez.



♦ Zorionak **Ioritz**, hilaren 3an, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta aiton-amonen partez.



♦ Zorionak **Enara Juaristiri**, hilaren 29an urtebete egin zuelako. Familiakoen, gurasoen, Eider eta Amaiaen partez.



♦ Zorionak **bikote**. Etxekoan, eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez. Aupa Athletic!



♦ Zorionak **Naroa** eta **Garazi**, 3 eta 5 urte bete dituzuelako aurtengo oporraldian.



♦ Zorionak **Nerea** eta **Asier**, abuztuaren 8an eta irailaren 29an urteak bete zenituztelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



♦ Azkenean iritsi da urriaren 2a! Dena prest? 12:30ean Itziarren egongo gara zuekin. Ondo pasa eguna. Familiakoen eta lagunen partez.

BEKAK**Administrazioa**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, herri-administrazioarekin zerikusia duten gaien buruzko ikerketak egiteko lau dirulaguntza eskaintzen ditu goi-mailako unibertsitate-tituludunentzako. Dirulaguntza jasotzen dutenek Administrazio Publiko, Zuzenbide Publiko edo Administrazio Zientziaren inguruko lan bat garatu beharko dute. Epea: urriak 4

IKASTAROAK**Hezkide Eskola**

Donostiako Hezkide Eskola, astialdia, suspertze soziokulturala eta boluntaritzako eskola da. Urtean zehar hiru arlo hauekin zerikusia duten ikastaro ezberdinak antolatzen dituzte. Hala nola, haur eta gazteekin lan egiteko formakuntza, ezinduekin aritzeko formakuntza eta helduekin lan egiteko edota dinamizatzaile bezala aritzeko ikastaroak eskaintzen dituzte. 04/05 ikasturtean ondorengoak eskainiko dituzte, besteak beste: zuzendari ikastaroa, astialdiko begirale ikastaroa, astialdiko teknikak, euskara dinamizatzailea, hezkuntza berezia. www.hezkide.org

LEHIAKETAK**Musika**

Goiena Multimedia-k "I. Danbeka Musika Lehiaketa". Bertara estilo desberdinetako musikataldeak edo solistak: pop, rock, punk, hardcore, hip-hop, elektronikoa, etab aurkez daitezke, gutxienez taldeko kide batek Deba Garaiko Mankomunitatean erroldatuta egon behar duenari. Sari nagusia disko baten grabaketa izango da. Epea: urriak 7

EKINTZAK**Elektronikaldia 2004**

Urriaren 8tik 10era bitartean, Donostiako Musika Elektronikoaren 6. Jaialdia, ELEKTRONIKALDIA 2004, ospatuko da. Gazteszena eta Arteleku aretoetan izango diren zuzeneko emanaldiez gain, askoz ere gehiago eskainiko digu aurtengo edizioak. www.elektronikaldia.org

LANA**Delineatzaileak**

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Ogasun Publikoaren zerbitzurako 12 delineatzaile aukeratzeko oposizio-lehiaketa antolatuko du. Lanpostu horietako 1, gutxienez %33ko minusbaliotasuna duten pertsonentzat gordeko da. Baldintzak: Batxilergoa, Bigarren mailako Lanbide Heziketa delineatze adarretik, Eraikuntza Proiektuen Garapen eta Aplikazio Gai-mailako Teknikari titulua, edo titulu baliokidea izatea. Epea: urriak 14

Itzultzaileak Bilboko Udalerako

Itzultzaileak Bilboko Udalerako Bilboko Udalak euskarako 2 itzultzaile lanpostu betetzeko hautaprobetarako deialdia egin du. Baldintzak: unibertsitateko diplomatu titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: urriak 15

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 1 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 2 Yudego
- 3 Ibañez
- 4 Bidasolo
- 5 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 6 Fernandez
- 7 Yudego
- 8 Zabaleta

GAUEZ

- Etxeberria
- Ibañez
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego
- Zabaleta

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

3 igandea Doña Mercedes

IKASTAROAK

KZgunea

Elgoibarko KZguneak doako ikastaroa eskainiko ditu urrian ere. IT KZgunea izenekoak izango da hauetako bat, Interneten ikasteko 20 orduko ikastaroa, alegia. Ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, bideokonferentzia, e.a. irakatsiko dituzte. Urriaren 18tik 29ra bitartean luzatuko da ikastaroa (16:00-18:00 edo 18:00-20:00). Bestalde, irudi digitalak aztertuko dituen mintegia izango da urriaren 4tik 7ra bitartean (18:00-20:00). Bigarren mintegia bizitza osasuntsuari buruzkoa izango da urriaren 11n (17:00-19:00). Azkenik gogoratu, 16 urtetik gorakoek interneten dohainik nabigatzeko aukera dutela KZgunean.

AISIALDI TXOKOA

URRIA



AtxutxiamaiKa
AISIALDI TALDEA

MARRAZKI LEHIAKETA

URRIAK 16, zapatua

11:00 Plaza Handian
HH (2-5 urte)

AQUARIUM-era IRTEERA

URRIAK 23, zapatua

LH 1-2-3 (10)

TXURI URDINERA IRTEERA

URRIAK 23, zapatua

LH 4-5-6 (10)

GAZ-T

AISIALDI TALDEA

PAINTBALL (Lasturren)

URRIAK 16, zapatua

DBH 1-2-3-4
15

Informazio gehiago

Tel: 943 74 16 26 (Nerea Oñederra)
E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

1 BARIXAKUA

20:00 "PORTUGALEKO ITSASOAK" ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Egilea: Luis Vioque

Kultur Etxean

Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte

22:15 ANTZERKIA

Antzezlan: "A ze para"

Taldea: Maskarada Antzerki Taldea

Herriko Antzokian

4 ASTELEHENA

17:00 ISABEL MILLET IPUIN KONTALARIA

3, 4 eta 5 urtekoentzat

Udal Liburutegian

17:30 ISABEL MILLET IPUIN KONTALARIA

6,7 eta 8 urtekoentzat

Udal Liburutegian

5 MARTITZENA

19:30 EINBIOUREN BATZARRA

Gaiak: Einbiouren plangintza osatu eta

hurrengo hilabeteetarako plangintza

Kultur Etxean

8 BARIXAKUA

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

3-8 urte bitarteko hurrei zuzendua

Plaza handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

ERROSARIO KALEKO

JAIAK

URRIAK 1, barixakua

18:00 Gorriti eta bere animaliak

21:15 Lagunarteko bazkaria Gelatxok alaitua
Kultur Etxeko sotoan

URRIAK 2, zapatua

12:00 Elgoibar eta Iparraldeko pilotarien
arteko pilota partidak

URRIAK 3, domekia

12:30 Meza San Bartolome parrokian

18:00 Errosario kalean hildakoen omenezko
meza parrokian

URRIAK 5, martitzena

17:30 Txokolatada guztientzat

URRIAK 6, eguaztena

17:30 Altxorarren bila eta herri kirolak
AtxutxiamaiKa A.T.ak antolatuta

URRIAK 7, eguna

ERROSARIOKO AMA BIRJINAREN EGUNA

8:00 Meza Santa Klaran

19:00 Meza San Bartolome parrokian

19:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira
Mauxitxa txarangarekin

Ondoren, Errosarioko Amabirjinaren
irudiaren aurrean otoitza eta salbea

Bukaeran luntza

ERAKUSKETAK

Luis Vioqueren argazki erakusketa

Luis Vioque madrildar argazkilariak berak inauguratuko du "Portugalgo itsasoak" argazki erakusketa gaur, hilak 1, Kultur Etxean (20:00). Ongarri Kultur Elkartek Kultura Sailarekin elkarlanean ekarri du argazkilari entzutetsuaren lana Elgoibarrera. Portugalgo kostaldearen edertasuna eta sentimenduak uztartzen ditu argazkilari bidaiari honen lanak. Bere argazkietan Portugalgo kostaldeak Atlantikoarekin duen lotura estua igarri daiteke. Erakusketa urriaren 16ra arte izango da ikusgai, astelehenetik larunbatetara, 19:00etatik 21:00etara Kultur Etxean.

OSPAKIZUNAK

42ko kintoak

Aurreko urteetan egin izan duten legez, 1942an jaiotako elgoibartarrek anaiarteko bazkaria ospatuko dute urriaren 23an, Sigma jatetxean, 14:30ean. Interesatu guztiek Euskadiko Kutxa/Caja Laboralean eman behar dute izena honako kontuan 35 euro sartzearekin batera: 007 1 03235 5. Urriaren 20a izango da dirua sartzeko azken eguna.

Kilometroak 2004

Mendaroko Udalak Kilometroetara joateko autobusak antolatu ditu. Txartelen prezioa 4 eurokoa da eta Morroskillon, udaletxean edo ludotekan eskura daitezke. Tren estaziotik aterako da autobusa 9:00etan eta Zarautzetik itzulera 20:30ean izango da.

IKUSKIZUNAK

Isabel Millet ipuin kontalaria

Aurtengo irakurketa suspertzeko kanpainaren barruan, urriaren 4an, astelehenean, Isabel Millet, ipuin kontalaria Udal Liburutegian izango da. Bi saio eskainiko ditu. Lehenengoa 3, 4 eta 5 urtetako geletako umeentzat 17:00etan. Bigarren saioa, berriz, 1, 2 eta 3. mailako umeentzat 17:30ean.

LEHIAKETAK

Soraluzeko Bertso Paper Lehiaketa

Soraluzeko Udalak eta Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak Soraluzeko Bertso Paper Lehiaketa antolatu dute elkarlanean. Deba bailara osoko bertsozale eta bertso jartzaile guztiei zabaldutako lehiaketan lanak aurkezteko epea urriaren 22a bitartekoa izango da. Lanak hurrengo helbidera bidali beharko dira: Pil-Pilean Kultur Elkartea, 27 postakutxatila, 20590, Soraluze edo pilpilean@euskalnet.net helbide elektronikora. Bertso paperek zortzi bertso izan beharko dituzte gutxienez. Gaia librea izango da. Lan sarrituen berri, urriaren 29an jakinaraziko da Soraluzeko jatetxe baten egingo den bertso afarian. Sari banaketa bertso afarian bertan egingo da. Informazio gehiago eta lehiaketaren gaineko oinarriak Pilpilean@euskalnet.net helbidera idatziz edo Soraluzeko udaletxera deituz lortu ditzakezue.



ELGOIBAR, Plaza Handian

"Spiderman 2"

2, zapatua: 19:30-22:15
3, domekia: 16:30-19:30-22:15
4, astelehena: 22:15

"Kill Bill 2"

8, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Cuestión de pelotas"

1, barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 17:00-19:30-22:30
3, domekia: 17:00-19:30-22:30
4, astelehena: 19:30-22:15
5, martitzena: 19:30-22:15
6, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"El Bosque"

1, barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 19:30-22:30
3, domekia: 19:30-22:30
4, astelehena: 19:30-22:15
5, martitzena: 19:30-22:15
6, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



"Spiderman 2"

Zuzendaria: Sam Raimi

Antzezleak: Tobey Maguire, Kirsten Dunst, Alfred Molina.

Bi urte pasa dira Peter Parker lasaiak bere betiko amodioa, Mary Jane Watson ederra, laga eta Spiderman moduko superheroia izateak dakartzan ardurei men egitea erabaki zuenetik. Super botereak dituen heroia da batetik, eta unibertsitate ikasle xumea bestetik, baina jadanik nekatuta dago bizimodu honetaz eta Mary Jane maiteari bere amodioaren berri ematea hausnartzen ari da. Bien bitartean Octopus doktorea moduko izaki maltzurri aurre egin beharko die.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Juanito Gorostizak** lortu digu. Gutxi gora behera, 1947. urte inguruan, Elgoibarko udaletxe aurrean ateratako argazkia da. Urte honetan, ariketa espiritualak ospatu ziren gure herrian. Ariketa espiritual hauek San Luis Gonzaga kongregazioko gazte jendearentzat izan ziren.

Argazki ederra da, dudarik gabe, baina baita inoiz publikatu dugun argazkirik zailenarikoa, bertan agertzen direnak ezagutzeko. Norberak bere burua ezagutzeko ere, lupa beharko du!

Aurreko ilaran, erdialdean **Don Jose Maria Agirrebalzategi** (Kongregazioko buruzagia) eta ariketa espiritualetan parte hartu zuen beste fraide Frantziskotar bat ageri dira.



ESKERTZA

2004ko abuztuaren 1ean, 60 urte zituela hil zen,
DOMINGO ULAZIA LARRAÑAGAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Urko

"Hemen gaude!!"

diskoaren
aurkezpena



Urriak 22, ostirala
gaueko 22:15ean
HERRIKO ANTZOKIAN



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko
Jaurlaritza

Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (Euskara Sailean) goizez **SALNEURRIA: 8 €**

GREMIOEN GIDA

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

ETXEKIT

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

IMAR

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

LODOSO

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

ONGI

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

PINTURAK

BIOK DEKORAZIOA S.L.

Santa Klara, 26 behea ezkerre
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
☎ 943 74 09 02
☎ 659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 679 19 77 47

E. ARANDIA

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94